



Goi-mailako bertso-afaria Arrieskalletan. - Jakina denez, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolariak Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko finalean bertsoan egingo dute datorren igandean. Duela lau urte buruz-burukora ailegatu ziren bi finalistek ostiralean izan zuten BECera joan aurretik euren buruari neurria hartzeko aukera Andoni Egaña bertsolari handiak prestatu, gidatu eta xaxatutako saioan. Afal ostein ekin zioten lanari kafea ateratzearekin batera eta goizaldeko ordubiak arte luzatu zen Lujanbio eta Arzallusren jarduna. Barakaldoko finalean osatu beharko dituzten arriketak egin zituzten: puntuka aritu ziren, hitza jarrita, hamarreko handian... Ikusleek gozatua hartu zuten punta-puntako bi bertsolariak entzunez. Nabari zen finalari begira sasoiaren daudela eta pieza politak oparitu zizkieten lasarteotarrei. Arrieskalleta elkarteak, Earral bertso eskolak eta Itakunek antolatutako ekimena izan zen eta arrakastatzat hartu zuten ostiraleko bertso-afaria. Sarreak salgai jarri zituzten eguean bertan agortu ziren, bertso saio potentia egin zuten bi protagonistek, giroa bikaina izan zen eta menua honakoa: euskal txerriaren gutxiak, zerbak edo azelgalk euskal erara egosiak, legatza donostiar erara prestatua eta postrerako txirikorda izozkiarekin, kafea eta kopa. Arrieskalleta elkarteak ardura zen afaria prestatzeaz. Betekada hartuta, etxerako bidea hartu zuten herriko bertsozaleek. Datorren igandeko BECteka dute zain orain.

3 GABONAK GHP/PIN-eko taberna kudeatzeko deialdi irekia

Herriko elkarteek kudeatu ahala izango dute Gabonetako parkeko sarrera eta taberna. Eskara abenduaren 15a baino lehen egin beharko da Udaletxeko erregistroan eta aurkeztu diren elkarte guztien artean zozketa egingo da. Sarrera eta tabernan irabazitakoa elkarte horietzat izango da.

4 MERKATARITZA "Tratu on bat" marka aurkeztu dute Udalak eta merkatariek

Herriko merkatarien harremana eta kalitatea nabarmetzen duen marka izango da Udalak eta herriko hainbat komertzioak aste honetan martxan jarritakoa. Lasarte-Oriako Merkataritza planean zehaztutako ekimenetako bat da, enpresa txikiak indartzeko asmoz bultzatua izan dena.

5 EUSKARA Euskararen erabilera aztertzen duen liburua aurkeztu dute

"Euskara eta Gazteak Lasarte-Orian III" liburua aurkeztu zuen udalak euskararen egunean. Gazteekin egindako ikerketaren berri eman zuen Lasarte-Oriako udaleko euskara batzordeak Pello Jauregi ikerketa eta liburuaren egilearekin batera. 20 urtetan egoera "irauli" egin dela diote.



Oparita heraldika eguberriak!
:Famili armarria
:Zuhaitz genealogikoa:
Pergamino, kartulina,
poliuretanoan, porzellanen
zein egurrean landuak.
Eskuz eginiko lanak

Blasón
heraldika tailerra
www.blasonheraldika.com
Don Larrauri 6, Donostia
943 43 18 81

**CARNICERIA
ARANZABAL
HARATEGIA**

Etorri gugana
eta
probatu gure kalitateak

**Behi xerra
9,95 /kiloa.
Kilo batekin,
oilasko bat OPARI**

Jaizkibel plaza II
20160 Lasarte-Oria •Tel.: 943 365156

Adituak dio



Xixuko

Kukurrukuuuu! Egutero lez, baserriko oilarrik esnatu nau. Jaiki eta ihintzaz bustia dagoen belarretik noa arineketa, umaiera sartu eta aurpegi garbitzeko asmoz. Goizeroko bainua hartu ondoren, etxearen alboan dagoen haritz sendo eta handiaren azpira gerturatu naiz, bertan baitut egutegia zintzilik. Lokatz pixka batekin gaurko eguna "x" hizkia markatu dut eta erutinarri jarraiki, abenduaren 24rako geratzen diren egunak zenbatu ditut. Hamasei! hamasei egun besterik ez dira falta egun handia iristeko! Pozez zorratzen nabil belarretan saltoka, zilipurdika... Eta bat-batean egun berezi horretan guztia behar den bezala geratzeko, aurrez prestatu behar ditugun zeregin guztiak etorri zaizkit burura. Izan ere, abenduko egun horretan haur guztien zorientasuna lortzeko lehenik bere etorrera gogorazti behar diet eta ondoren beraien eskutitaz jaso beharko ditut. Beraz, nire egiteko guztiak gauzazeari ekiteko ordua iritsi da. Nire jantzi berria soinean ipinita eta gutunak jasotzeko poltsa eskuetan harturik, korrika irten nahiz baserriki Lasartera bidean.

Neska-mutilok! Iritsi da eguna, urtean zehar gurasoei hainbatetan hari buruz galde egin dieguna! Iritsi da gau askotan amestu dugun eguna! Bai, iritsi da Olentzeroren etorreraren eguna! Guztiok izango duzue marrazkiren bat edota eskutitzen bat Olentzerori emateko. Horregatik, laster izango nautze zuen eskoletan, urtero bezala zuei muxuak eta besarkadak banatzeaz gain, Olentzerorentzako egiten dituzuen opariak jasotzeko ere. Gainera, abenduaren 24an Okendo plazan ikusiko gara, Mari Domingi eta Porrotekin batera, Olentzerori merezi duen ongi etorria emateko! Ordura arte lagunok eta txintxoak izan!

Gabonak datoz...

Gabonak gainein ditugu. Aste batzuk dira herriko hainbat erakuslehotan ohiko apaingarriak ikustean ditugula, beste herri eta hiriburuetan argiak aspaldi piztu zituzten... Jendea datozten bazkari eta afarietarako menuak pentsatzen hasia da eta gustatu ala ez, zuhaitz, jaitza, apaingarriekin edo gabe, hemen dira Gabonak.

Egun hauek helduen artean hain gustagarriak ez diren arren, behintzat hori jasotzen da herriarrek hitz eginda, aitortu behar da oso hilaibete berezia dela eta asko gozatzen dutela etxeko txikienei.

Hautatzat Gabon kantak, Santo Tomas jaia, Olentzeroren etorrera... urteko hitzordu garrantzitsuenak da eta hilaibeteak daramatzate honen zain, eskutitzak idatzi eta marrazki dotoreenak prestatzen.

Ohiturei erreparatuta, betiko eztabaida, kontsumismo basatirako egunak direla, erlijioarekin lotutakoak...

Kultura bakoitzean bere ohiturak omen eta gurean urtean Olentzerori izan da protagonista, duela ez hainbeste Mari Domingi iritsi zen gurea eta Lasarte-Oria baste beste herrietan ez den lagun kuttun bat ere, Xixuko.

Ahate honek urte asko daramatza Lasarte-Oriako umeen eskutitzak jasotzen, Olentzeroren laguntzaile fina. Berriki herriko pailazoek euren 25 urteetako ibilbidea jasotzen duen liburua aurkeztu zuten eta ibilbide luze honen baitan topatzen dugu ere Xixuko.

Herriko eskoletara bisita aurki egingo du eta duela 20 urte baino gehiago lehen aldiz izan zuen harrera beroa jasoko du urtero moduan.

Hitz eta pitz

Gabonak gustatzen zaizkizu?



Flor Llaguno

Gabonak ez zaizkit asko gustatzen maite dudana jende asko falta zaidalako egun horietan. Egia da etxean umeak daudenean beste ilusio batekin bizitzen direla egun horiek, Olentzeroren etorrera berezia da haurrentzat eta kutsatu egiten da. Baina nik ia beste modu batera bizi ditut. Garai batean guk ere ilusio hori genuen baina dagoeneko beste modu batera ikusten dituzu jaia.



Miren Iparragirre

Ba nire kasuan, Gabonak geroz eta gutxiago gustatzen zaizkit. Egia da etxean umeak daudenean beste ilusio batekin bizitzen direla egun horiek, Olentzeroren etorrera berezia da haurrentzat eta kutsatu egiten da. Baina nik ia beste modu batera bizi ditut. Garai batean guk ere ilusio hori genuen baina dagoeneko beste modu batera ikusten dituzu jaia.



Rosa De Ana

Egun horiek deprimitzen nautse. Gabonak ez zaizkit ezer gustatzen eta uste dut jende helduari orokorrean ilusio bereziak ez ditugula egiten egun horietako bazkari eta afariei. Familia elkarrekin da eta faltan botatzen dituzu ez daudenak. Gurean gainera seme bat atzerrian daukat eta asko gogoratzen zara berarekin. Umeak etxean daudenean oso desberdin bizi dira Gabonak.



Alazne Gonzalez eta Sara Prieto

Bai Gabonak gustatzen zaizkigu. Batez ere etxean familia guztiarekin elkarrekin garelako eta ondo pasatzen da bazkari eta afarietan. Gainera opariak jasotzen ditugu. Urtean zehar oso gutxitan jasotzen dira opariak eta Olentzeroren ilusioarekin hartzen ditugu. Oporrak ditugu Gabonetan eta lagunekin elkarretzeko aukera gehiago dugu.

Iruditzen

Lagun postaria



90.hamarkadako irudian Xixuko Zumaburu-Kaxkaroko ikasleak bisitatu.

Xixuko herriko pailazoek eskutit iritsi zen Lasarte-Oriara. Olentzeroren etorrera eskolek antolatzen zuten eta bertan pailazo lanetan hasi ziren agertzen irakasle batzuk. Hortik sortu zen Takolo, Pirrutz eta Porrotx pailazo hirukotea. Haienkin batera Olentzerori ongi etorria emateko pailazoekin oholtzan azaldu zen ahate bihurria. Berehala Olentzerori eta Mari Domingiren lagun ona egin zen Xixuko eta urtero urtero hauen laguntzaile bihurtu zen. Kanta bat eta guzti eskaini zioten pailazoek Xixukori. Umei eskoletan bisita ere egiten die eta marrazki eta eskutitzak jasotzen ditu.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko irizti-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



GFAK Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Txatun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

C-20407557

Legezko gordailua:

SSS13/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakia: 7800

txintxarri

Eredakzioa:

Nerea Elizagite, Maider

Azumendi, Jon Aluna E.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola

publizitatea@takun.com

administratio@takun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,

Ane Labaka, Maiala Aruti, Agier

Odriozola, Jone M. Hernandez,

Oihana Salazar, Pako Azpitarte,

Edu Galardi

Informetika:

Xabier Armasola

UDALA

Taberna kudeatzeko deialdi irekia

Gabonetako haur parkea martxan izango da hamaika egunetan

Herriko elkarteek kudeatu ahal izango dute Gabonetako parkeko sarrera eta taberna. Eskaera abenduaren 15a baino lehen egin beharko da Udaletxeko erregistroan eta aurkeztzen diren elkarte guztien artean zozketa egingo da. Sarrera eta tabernan irabazten dena elkartearentzat izango da.



Gabonetako parkeko taberna zabalik egongo da parkearen ordutegian.

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria, Festak eta Kirolak sailetik, herriko irabazi-asmorik gabeko talde eta organismo ezberdinei aukera eman nahi die abenduaren Michelingo kirol gunean antolatutako ohi den Gabonetako Haur Parkeko taberna eta sarrera salmentak kudeatzeko.

Udalak azaltzen du, modu horretan, "talde hauek herriarentzat burutzen duten gunea baloratuz eta kontutan hartuz, helburua diru sarrera extra bat eskaintzea litzateke. Haien lana erraztuko lukeena eta eskaintza hobetzeri eramateko aukera bat litzatekeela pentsatzen baitugu".

Hautatutako elkartearen ardura izango da Gabonetako Haur Parkeko sarreraren kontrola eta tabernaren

kudeaketa parkea irekitu dagoen ordutuan.

Sarrerak, Gazteria, Festak eta Kirolak sailetik emango dira zuzenean saltzeko, kasu honetan helduei, euro baten truke. Aldiz, tabernaren horniketa eta ustiaketa osoa, taldearen esku geratuko litzateke; irabaziak, osotasunean, taldeak jasoko dituelako.

11 eguneko lana da bertan burutu beharrekoa eta interesa duten taldeek lanerako jende nahikoa izango dutela ziurtatu beharko dute aurrez udalak aipamarratu duenez.

Abenduak 15

Deialdi ireki honetan parte hartzera deitzen du udalak.

Interesa duten taldeek, abenduaren 15a baino lehen erantzun beharko dute Udaletxeko erregistroan haien eskaeria sartuta.

Proiektuek oniritzia jaso ondoren, talde guztiekien zerrenda bat osatuko da eta 2013. urteko Gabonetako Haur Parkearen kudeaketa noren esku geratzen den erabakitzeko zozketa bat egingo dela jakitera eman du udalak.

Horrela udaletik azaldu dutenez, osatzen den zerrenda datozen urteetan kontutan hartuko da, "urterto organismo edo talde ezberdin bati, ordonaren arabera, eskainiko zaio Gabonetako Haur Parkeko sarrera eta tabernaren kudeaketa".

TTAKUN

Santo Tomasen postua jartzeko deialdia

Ttakin Kultur Elkarteak Santo Tomas egunean postua jarri nahi duenei deialdia luzatzen die. Kontutan hartu eta baloratu da jendeari harrera euskaraz egitea eta Santo Tomas egunean filosofiarekin bat egitea, jantziak eta eskaintzari dagokionez.

Interesatuak abenduaren 16a baino lehen kultura@ttakin.com-era mezua bidali beharko dute. Honetan erakundearen edo arduradunaren izena jarri beharko da, harremanetarako telefono zenbaki bat eta labor azaldua postuan izango den eskaintza. Ttakunek eskaera guztiak jaso eta berehala jarriko da harremanetan eskaera egin duten herriarrek.

PSE-EE

Jostailu bilketa PSE-EEren egoitzan

PSE-EEK krisi garaian egoera larrian dauden familien egoera irintzeko ekarpena egin nahi du. Hau dela eta jostailu bilketa solidarioa antolatu dute. Jasotako jostailuak Caritas-en esku utziko dituzte, jostailuen banaketa gardentasun osoz egin dadin.

Gaurtik hasi eta abenduaren 20ra bitartean 18:00etatik 20:00etara zabalik egongo da PSE-EEren egoitza jostailuak jasotzeko. Berrerabiltzeko moduan dauden jostailuak jasoko dira eta trukean bizikleta baten zozketan parte hartzeko txartela izango dute herriarrek. Bizikleta eskuratuko da, abenduaren 22ko loteria sari nagusiaren azken bi zenbakiak dituen txartelaren jabeak. Hilabeteko epea egongo da saria hartzeko.

KUKUKA

DVD aurkezpena

Kukuka Antzerki eta dantza eskolak 2012-2013ko antzerki eta dantza astearen DVD-a aurkeztuko du guraso eta ikasle guztientzat gaur Manuel Lekuanon 19:00etan.

Ekitaldian DVDan jasotakoaren zatibo bat ikusi ahal izango da eta sorpresa bat izango dela ere aurreratu dute antolatzaileek. Bukarera antzerki eta dantza eskolak dituen egitasmoak azalduko ditu.

EMAKUMEAK

Autodefentsa ikastaroa Gaztelekuan

Emakume zentroak antolatuta larunbatean autodefentsa tailer feministak egingo da Gaztelekuan. Ikastaroa 16 eta 30 urte arteko emakumeei zuzendutakoa da eta aurrez Gaztelekuan bertan eman behar da izena. 30 laguntzako lekua dagoela azaldu dute antolatzaileek eta doan izango da. Ikastaroaren ordutegia 10:30etatik 14:00etara eta 16:30etatik 20:00etara izango da.

IKASTAROA

Janari manipulatuzaile ikastaroa

Elkolab. S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udaren Osasun sailarekin elkarlanean, janari-manipulatuzaile ikastaro berri bat emango du. Arrisku handiko elikagaiak erabiltzeko balioko du eta ostalaritzako sektoreari zuzendua da Osasun Sailak eskatzen duen autokontrolaren inguruko edukia baititu.

Ikastaroa abenduaren 16an izango da Osasun Zentroko bigarren solairuan dagoen erabilera irizteko aretoa. Ordutegia 09:30etik 13:30era izango da. Prezioa pertsonako 45 eurokoa da; langabetezkat beriz, 35 euro (eregimen orokorrean dauden pertsonak hobaria izan ditzakete). Informazio gehiago jaso edo izena emateko 943 361 605 edo 943 533 303 zenbakitan.

MEGABA

Errege Magoen marrazki lehiaketa

Megabak marrazki lehiaketa antolatu du. Gaia "Errege Magoak" da eta 3 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Marrazki bakarra aurkeztu daiteke eta adinaren arabera hiru talde egingo dira. Adin kategoria bakoitzaren saritu bat egongo da eta hiru horietatik aterako da irabazlea. Hau Errege Magoak iragartzeko erabiliko den kartelean agertuko da.

Marrazkiak paperezko formatuan A4 tamainakoa eta tolestu gabe, erliebigabe gabe, izan beharko dira. Umearen datuak jarriko dira atzean baina ama, aita edota legezko tutorearen datu pertsonalak ere, izen-abizenak, helbidea, posta elektronikoa eta harremanetarako telefonoa. Abenduaren 20a da marrazkiak aurkezteko azken eguna Manuel Lekuanon jantzen den postontzian.

"Biba zorrien izurritea" ostiralean

Udaleko kultura sailak Kukuka antzerki eta dantza eskolarekin batera antzerki amateurrari tartea egingo dio aurrerantzean Manuel Lekuanon.

Hain zuzen elkarlan horren lehenengo saioa izango da ostiralean ikusi ahal izango den "Biba zorrien izurritea" antzezlan.

Iaz jarri zuen martxan EHAZE Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak Antzerkizale zirkuitua egitasmoa, eta auten errepikatuko du.

Egitasmoaren helburua Euskal Herriko txokoko antzerkizale taldeetara eta, batik bat, euskaraz sortutako antzerkizale sartzatzea.

Aurtengo zirkuituko azken saioa izango da ere Markinako Abarkak antzerki taldeak Lasarte-Oriako Manuel Lekuanon kultur-etxean eskai-



Markinako Abarkak antzerki taldearen lana izango da Manuel Lekuanon.

niko duena. Ostiralean 22:00etan izango da hitzordua eta oholtzan Joseba Sarriandariaren mikroipineta "Idazlea zeu zara, irakurturen duzulako" onirritutako lana izango da Ander Lipusen gidaritzapean.

Ipuinak kolore askotakoak

dira; batzuk oso dinamikoak eta espresiboak dira eta beste batzuk, ordea, sakonagoak. "Ikusleek iragan urruneko deskribapen umoretsu eta poetikoa jasoko dute".

Adin guztientzako antzerki lana da eta sarrera 5 eurokoa da leihatilan.

"Tratu on bat" marka aurkeztu da

Lasarte-Oriako merkataritza irudikatuko duen marka berria da

Lasarte-Oriako Udalak Merkatariekin elkarlanean, "Tratu on bat" marka jarri du martxan. Herriko merkatarien harremana eta kalitatea nabarmetzen duen marka izango da hau. Lasarte-Oriako Merkataritza planean zehaztutako ekimenetako bat da marka berri hau.

TXINTXARRI

Tratu on bat" marka aurkeztu zien Lasarte-Oriako Udalak herriko merkatariei. Dioni Avila Merkataritzako teknikoak eta Haritz Iparragirre Udaleko Komunikazio arduradunak izan ziren aurkezpenean eta Lasarte-Oriako ostalari, merkataritza eta zerbitzu enpresei markaren nondik norakoak azaldu zizkieten.

Dioni Avila merkataritzako teknikoak gure herriaren bilakaera ekarri zuten gogora, "historikoki industria izan da gure herriko ekonomiarene eragile. Baina azken urteetan, estruktura aldatu da eta krisiarekin asko zehaztu".

Lasarte-Oriako egoera ekonomikoa laria dela eta, Udalak hau hobetzeko lanean dagoela aipatu zuten, "enpresa txikiak indarri nahi ditugu, horiek baitira egungo estruktura ekonomikoa".

Marka berria eta ekintzak

Horretarako merkataritza planean adostutako hainbat ne-

rriri ari dira aurrera eramaten. "Tratu on bat" marka horietako bat da.

Marka berriaren irudia, elkarri eskua ematen dioten bi esku izango dira.

Honekin bi kontzeptu irudikatu nahi izan dituztela azaldu zuten Dioni Avila, "batetik merkatarien harremana eta zuzena dela eta bestetik zerbitzu ona eta kalitate onekoa eskaintzen dutela".

Gainera, Lasarte-Oriako Udaleko logoa ez dela agertuko azpimarratu zuten Dioni Avilak, "herriarrek marka merkatariekin lotzea nahi dugu. Hala ere, bidezkoekin lan egiten dutenak. Eman behar diren pausok zehaztea ere nahi dugu. Horregatik haien iritzia kontuan izan dugu prozesu honetan".

Iudri berri hau dagoeneko kartel eta eskuorrietan ikusi ahal dugula aipatu zuten.

Gainera, komertzioetaren pegatinarri jarriko direla eta hurrengo asteetan, merkatariek marka berria duen poltsak eta diru-zorroak ere banatuko dituztela jakin arazi zuten.



Bilera desberdinetan Lasarte-Oriako Udalak "Tratu on bat" marka aurkeztu zien merkatariei, ostalari eta zerbitzu enpresei.

Egutegia

"Tratu on bat" egutegia ere argitaratuko dela adierazi zuten aurkezpenean.

Herriko merkatariek eskaintzen duten tratu ona irudikatzen duten 4 argazki komiko izango dira honetan eta Udalak herriko merkatariek hauetan parte hartzea nahi du.

"Argazkiak leku generikoenetan egingo dira. Bezero bat egongo da eta bere inguruan sektore desberdinetako jendea agertze nahi dugu. Izan ere, Lasarte-Oriako merkatarien tratu ona irudikatu nahi dugu," adierazi zuten Haritzek.

Argazki hauek aste honetan egingo dira eta Lasarte-Oriako Udalak herriko merkatariek animatu nahi dituzte argazkian agertzea.

Web orrialdea

Hau guztiaz gain, www.eskaintzak.lasarte-oria.org orrialdea martxan jarriko dute aurki.

Haritz Iparragirrek aurrera tuz duenez, "bakoitzak bere lekua izango du orrialde honetan eta eskaintza bereziak bertan argitaratzea da asmoa. Gainera, aurrerago, mugikorarako aplikazioa ere izango da".

Merkataritza plana

Aipatu legez, aurkeztu den marka Lasarte-Oriako Udalak duen merkataritza planean puntuetako bat da.

"Iazko azaroan merkatariek lanean hasi ginen eta apirillean haien parte hartzearekin finkatu genituen planaren bideak," adierazi zuten Dioni.

"Tratu on bat" markaz gain, komertzio berria ireki nahi duten herriarrentzat 14.400 eurotako diru-laguntza egongo dela aurreratu zuten, baita Buruntzaldea arloan beste proiektu batzuetan lanean ari direla ere.

Harkaitz Canorekin "Twist" eleberriaz solasean

Lasarte-Oriako irakurle txokoak gonbidatu berezia izango du bihar arratsaldeko 18:30etik aurrera, Harkaitz Cano idazlea. Literatura zaleek "Twist" nobela aztertu dute Uxue Alberdiren laguntza eta idazlearekin haien hausnarketak elkarbanatzeko aukera izango dute.

"Twist" nobela

Harkaitz Canok idatzi duen eleberririk luzeena 2012ko Euskadi saria jaso zuen.

Euskal Herrian 80ko hamarkadan kokatua dago "Twist" nobela. Honetan pertsonaia nagusiaren bi adiskide bahlitu, torturatu, hil eta desagerrarazi egin dituzte eta Joxean Lasa eta Joxi Zabalen kasua dakar gogora.

"Pertsonaia fikziozkoak dira, istorioa fikzioa da, baina, jakina, bai pertsonaia eta bai istorioa 80ko hamarkadaren ispiluan jarriak izan dira, ispilu deformante

batean" esan zuten 2011ko azaroan egin zen aurkezpenean.

"Kasu honetan, errealitatea azpimarratzeko erabiltzen da fikzioa. Fikzioa izan daiteke ihesbide bat, baina baita errealitateari, zati errealarri, indarra emateko edo azpimarratzeko modu bat eta kasu honetan hori da erabiltzen den estrategia," azaldu zuten Euskadi Saria eskuratu ondoren, TXINTXARRI eskainiko elkarrizketan.

Harrera ona

Pozik agertzen zen bai profesoien harrera onagatik, baita irakurleen iritziegatik ere.

"Hasieratik sumatu dut jendearen aldetik beste batzuetan baino interes edo inplikazio handiago bat, esango nuke 80. hamarkada oso presente dagoen beldur-naldien kasuan, jendeak bere-rik dezente jartzun du eta

asko komentatzen du hamarkada horretako oroitzapenak bat datozen edo ez, edo zein neurritan. Alde horretatik asko eman didan liburu izan da," adierazi zuten.

Era berean, hainbat literatura txokoetarako deitzen ziotela aipatu zuten orduan. "literatur txoko eta solasaldi dezentetik deitu

didatenez, behin eta berriro nabil dantza beraren inguruan".

Oraingoa, Lasarte-Oriako irakurle txokora etorriko da bere liburuen nondi

norakoak azaldu, herriarren galderak erantzun eta haien iritzia jakitera.

Irakurle txokoa

Bi hilabete dira irakurle txokoa martxan jarri zenetik eta hainbat dira Villa Miren-txun egiten den irakurle txokoko saioetara hurbildu diren herriarrik.

Lehenengo saioan Miren Agur Meaberen "Kristalezko begi bat" eleberraren inguruko solasaldia burutu zuten. Idazlearekin euren inpresioak plazaratu ahal izan zituzten ondoren.

Bigarren saioan Irene Nemirovsky-ren "Dantzaldia" lana izan zen hizpide eta bihar, Harkaitz Canoren "Twist" eleberria izango da. Aurreko saioetako harrera ona espero dute antolatzaileek.

Harkaitz Cano, "Twist" nobelaren aurkezpenean, 2011ko azaroan. HITZEN UBERAN



Pello Jauregi Ikerlaria

"Familia da euskararen fabrika emankorrena"

"Euskara eta Gazteak Lasarte-Orian III" liburua aurkeztu zuen udalak euskararen egunean

Euskararen egunaren aitzakitan, Manuel Lekuona kultur-etxean, 2012an hirugarrenez, adin-talde bereko gazteekin egindako ikerketaren berri eman zuen Lasarte-Oriako udaleko euskara batzordeak, Pello Jauregi ikerketa eta liburuen egilearekin batera. 20 urte pasa dira lehenengo ikerketa egin zenetik eta "oso esanguratsua da egoera nola irauli den" iflaki Arrutik azaldu zuen bezala. Jauregik azaldu ditu azterketa honen ondorio nagusiak. Bere ustetan baikortasunerako emaitzak dira. Batez ere azterketak kale neurketen emaitzen joera erakusten duelako.



Udal ordezkariak izan ziren euskararen eguneko aurkezpenaren iflaki Arruti teknikaria eta Pello Jauregi egilearekin.

Maidar AZURMENDI

Pello Jauregi egindako azterketan ondorioztatu da 13-24 urteko gazteetatik %94,4k oso ongi edo nahiko ongi ulertzen duela euskara egun Lasarte-Orian. D ereduaren egonkortzearekin %30 da euskararen erabilera informala. Jauregiaren ustetan jauzi bat emateko baldintza guztiak daude euskararen erabilera handitu dadin. Urte beteko lana izan da ikerketa eta 13 eta 24 urte arteko 162 gaztek osatu duta lagina.

Nolatan azterketa hau egiteko proposamenak?

Proposamen honek historia luzea du. Udalenaren ekimena da, duela 20 urte lehenengo azterketa egin zen, duela 10 bigarrena eta 2012an hirugarrena egin dugu.

Helburua denboran zehar ikerketa egitea da ikusteko zein bilakaera dagoen herrian eta datu bilduma finko bat osatzeko.

Nolabait esateko termometroa jartzen da hamar urtean behin euskararen temperatura zein den ezagutzeko.

Lehenengo urtean Jose Mari Iraolak egin zuen, 2002an beka bidez egin zen deialdia eta nik eskuratu nuen eta oraingoa ere niri eskatu zidaten egitea azterketa.

Zer aztertu da zehazki? Modu honetako beste

azterketarik egin al duzu?

Egia esan gehiago ibiltzen naiz azterketa kualitatiboak eginen. Horrelakoak beraz Lasarte-Oriakoak dira landu ditudanak. Jaurilazatik azterketa orokorrak eginen dira baina beste herrietan ez omen da halakorik eginen. Aitzindari izan daiteke Lasarte-Oria esparru honetan.

Aztertu da 13 eta 24 urte arteko herriko gazteen artean euskararen erabilera zein den. Horretarako aurreko azterketetan jarraitutako metodologia baliatu dugu eta galdeketa bera.

Aipatu behar da jasotakoak datuak aitoratuak direla. Hala ere, azken kale neurketarekin alderatuta joera bera erakusten dute bi azterketek beraz sinesgarritasun maila altua du lanak.

20 urte hauetan Lasarte-Oriako gazteen artean euskararen presentzia handitu da. Zein faktorek eragin du aldaketak?

20 urte aldatu egin dira hizkuntza adierazle guztiak Lasarte-Orian.

Poliki-poliki etorri da. Horrela euskara gaitasuna, erabilera, hizkuntzarekiko atxikimendua gora egin du. Bestalde, eskolan D ereduaren orokortzea gertatu da, guraso eskaldunen kopuruak gora egin du, eta herrian euskaraz egin diren dinamika ugariatu dira.

Faktore guzti hauek eragiten dute emaitza aldatzekin.

2002ko emaitzak ez ziren hain onak...

Egia da bai, 2002tik 2012ra aldeketa handiagora nabaritu dugula lehenengo azterketa hartatik bigarreneira baino. Hau azaltzeko hipotesietako bat da etxearren eragina, gurasoen eragina hain zuten.

Kontutan izan behar da orain aztertu ditugun gazteen gurasoak Frankismo bukaera eta trantsizio hasierakoak direla. Hauek jaso zuten garai haitetan Euskal Herrian bizi zen euskararekiko ilusio sozial guztia eta horrek eragina izan du euren hizkuntza portearan.

Hori eragin gehigarri bat izan da haien seme alaben euskararekiko atxikimenduan eta jokarean. Guraso horiek gainera soziologikoki, lehenengo belaunaldia dira Lasarte-Orian jaio direnak, etorkinen seme-alabak izan arren, euren erreferentzia kulturalak hemoangoak dituzte.

Ama hizkuntza zein den eragina duela frogatu dugu...

Afektibitateak garrantzia handia du hizkuntzan. Hala ere, ikusi da lehen amaren eragina handiagora zela aitarena baino, hau da soilik aita euskalduna zenean euskararen transmisioa ez zegoen bema-tuta eta ama zenean bai. Orain orekatu egin da hori hizkuntzari dagokionez.

Etxeak du garrantzia?

Bai hori da. Belaunaldi berrien hizkuntza jokaera ulertzeko batez ere ulertu behar da haien sozializazio-leen, gurasoen, jokarea zein den. Horretan aldeketa handiak ikusi ditugu eta gurasoen

eragina islatzen da gazteen-gan.

Eskolaren eragina txikitu al da?

Egun D ereduaren orokortuta dago Lasarte-Orian. Datuek erakutsi dute atzetik familia euskalduna badago, 10etik 9k oso ongi hitz eginen dutela, eta 10etik 6k joera daukala euskaraz hitz egiteko.

Ahatik, D ereduaren atzetik familia ez dagoenean asko aldatzen dira emaitzak, 10etik 3k lortzen du soilik euskaraz ondo hitz egitea eta 10etik 2k erabili, hitz eginen dute.

Eskolak bakarrik sozializatzailer bezala askoz ere indar gutxiago du. Dagoeneko eskolak eman du eman beharrekoa. Liburu bukaeran eginen dugu galdera, egun D ereduaren %100ean eta hala ere erabilera %38koa bada, nola iritsi erabilera %60ra? Eskolak dagoeneko ezin du gehiago egin.

Beste fenomenoerik azalera-tu al da?

Batzu askotan inflexio puntu batzuk ikusten ditugu. Tendentziatik aterata eta beste fenomeno bat agertzen da. Ikusten da guraso bakarra euskalduna izan edo biak nabarmen eragina duela gaitasun, erabilpenaren eta.

Berdina gertatzen da gaitasunarekin. Oso ondo hitz egin edo nahiko ondo hitz egitearen artean ez luke alde handirik egon behar baina badago erabilpena eta atxikimenduari dagokionez.

Soziologikoki esan daiteke egoera bat ez bada iristen normaltasun puntura egoera oso inestablea dela. Familia euskaldunen kasuan egoera ez da baina horrela ez denean egoera inestablea da eta emaitzak aldatzen dira.

Bestalde, gaitasunari dagokionez, nahiko ondo hitz egin arren, zailtasunak baditu gazteek hizkuntza ez duela erabiltzen ikusten da datuetan.

Non egin behar da lan hemendik aurrera?

Fokoa esan bezala, familian jartzen dugu. Euskararen fabrikarik emankorrena, egonkorrena eta sendoa. Horretan indarra jartzen duten plan guztiak ongi etorriak izango dira.

Modu prebentibo batean badago zer egiterik. Familiak osatu baino lehen, bikoteak sortze direnean, eta gazte garaian sortzen dira batez ere, hizkuntza jokarean eragiteak oso ondorio onak erak ditzake. Horiek izango dira etorkizuneko familiak.

Zein da ondorio nagusia?

Badaudela baldintza soziolinguistikoko jauzi kualitatibo bat emateko. Horren baldintza dira ia gazte guztiak euskara egin nahiko edo nahiko ongi ulertzen dutela euskara. Eta gazteen erdiak oso ondo hitz eginen dute.

Beraz, nahi izanez gero, borondatea badago, euskaraz hitz egin nahi duen gazte orok ez luke arazorik eduki beharko. Baldintza hauek lehenengo aldiz ditugu Lasarte-Orian.

Horrek esan nahi du kanpainak prestatu behar direla gazte horiek aktibitateko. Orain arteko diskurtso asko aldatu dira, ez dago esaterik "gure lagunetako batek ez daki euskaraz horregatik eginen dugu gaztelaz" hori dagoeneko ez da egia.

Aktibazio hori egiteko kanpaina kolektiboa behar du izan, herri mailakoa. Askok dago egiteko, automatikoki ez da etorriko.



Pello Jauregi azterketaren nondik norakoak azaldu zituen aurkezpenaren.

PILOTA.



Lehenengo minutuetan ederki jokatu zuen Intzako bikoteak. TAMIA VALLES

Intzako jubenilak Ezker hormako txapelkun orde

Intzako jubenil mailako bikoteak abenduaren 1ean, Ezker Hormako Gipuzkoako finala jokatu zuen Ziotzaren aurka Zizurkilgo Intxaurre pilotalekuan. Lasarte-Oriako bikoteak ezin izan zuen Zizurkilgoa garaitu, 14-22 galdu zuen.

Joxe Felix Solano entrenatzaileak aipatu digunez, Axiar Artega eta Mikel Aranguren ongi hasi zuten partida, "5-0 eta 12-1 egon ginen. Arteagak ongi jokatu zuen aurrean eta Ziotzak bikotea ez zebilen ongi. Aurrelariak hainbat huts egin zituen".

Tamalez Ziotzak bikotea, Labaka eta Erasun, atzean jokatzen hasi zen. "Bagenekien hasiera hori ez zela erreala. Kantxan ongi jarri eta haien jokoa egiten hasi ziren, espero genuen bezala," adierazi digu.

Era honetara, jokoan nagusi ziren arerioak. Eta partidako lehen minutuak alde batera utzita, aurrean ere tantoak ongi bukatzen zituztela aipatu du.

Hala ere, Joxe Felix pozik agertu da jubenilek egindako lanarekin.

Hurrengo txapelketak

Intzako arduradunak aurreratu digunez, orain jubenilek atsedenaaldi txikia izango dute. Baina Arteagak esate baterako, hainbat txapelketetan parte hartuko duela azpimarratu du, Villabonan Anton Pobet oroimenezkoa, Sorosa Oromoenezkoa eta Bergaran 4^o tzerdiko banakakoa.

Bestalde, Intzako gainontzeko lagunek abenduaren 15ean trinketeko txapelketa hasiko dute.

FUTBOLA.

Bidezko puntu banaketa Michelinen

Ostadarrek bina berdindu du Tolosarekin

Neurketa bizia izan zen larunbatekoa, trabatua zenbait unetan, baina ikusgarria era berean. Saillkapeneko lehen bost postuetan kokatuta dauden bi taldeentzat garrantzitsua zen jokoan zeuden hiru puntuak eskuratzea, baina berdinketarekin amaitu zen. Puntu banaketa justua Ohorezko Erregional mailako 13. jardunaldian.

JON AULTUNA EGOTEGI

Partidako lehen minutuak halamoduzkoak izan ziren, bi taldeek ezin izan zuten euren jokoa onera erakutsi nahiz eta biek ala biek aukeraren bat sortu lehen 15 minutuetan. Zelai erdian bi taldeek erraz galtzen zuten baloia, errazegi, eta faltak ere asko izan ziren lehen minutu horietan.

Hain justu, zuzeneko falta jaurtiketa baten bidez etorri zen Ostadarren lehen gola. Iker Pelagok Tolosaren hesia gainditu eta eskuadratik sartu zuen gola. Sekulako gola. Gola! Lasaitasuna eman beharrean, badiurdi urduri jarri zituela urdin-beltzak. Tolosa hazi egin zen eta aukera dezente sortu zituen

lehen zatia erdialdera.

35. minutuan garrantzia handirik gabea falta egin zuten Ostadarreko erdilariek zelai erditi atzera. Tolosako atezainak baloia area ertzean jartzeko arduratu hartu eta erdiko aurrelariaren kontrol orientatu bikain baten ostean baloia gurutzatu eta Tokero atezainak ezin izan zuten ezertxo ere egin tolosarren gola eragozteko. Halaxe hartu zuten aldageletarako bidea, markagailuak banakoa erakusten zuela.

Bigarren zatia hasiera negargarria eman zioten etxe-koek. Tolosak jokorean kontrola bere gain hartu zuen eta noraezean ibili ziren Ostadarreko mutilak bigarren zatiko lehen minutuetan.

Bere gizonen ezintasuna ikusita, Joseba Roteta Ostadarreko entrenatzaileak hainbat aldaketa egin zituen. Minutu-gutxira partidak beste norabide bat hartu zuen. Lotsarik gabe erasora jo zuen Ostadarrek. Sortukoak gabuegoteko batean Utiel aurrelariak Tolosako defentsa zentralari izkin egin eta honek penaltia egin zuen. Txartel hori bat bazuenez, bigarrena ikusi eta Tolosa joklari bat gutxiagorekin utzi zuen.

Utiel berak hartu zuen penaltia jaurtitzeko ardurak, baina gaizki bota eta Tolosa-

ko atezainak erraz antzean gelditu zion.

Azken minutu eroak

Azken hamabost minutuetan partida ia erabat hautsi zen. Aizpurua kenduta, Painok joko zuzena lantzeko aukera gehiago ematen zuen zelai erdian eta Hodei zein Mujikaren abiadura probestu nahi izan zuten hegaletan.

Painok berak ezker hegaletan hasitako jokaldi eder batek ekarri zuen Ostadarren bigarren gola. Atzelariak atzean utzita, barnekaldia egin eta bigarren zutoinean zain zegoen Mujika baloia saretera bidalitzeko. Artean, zortzi bat minutu falta ziren neurketa amaitzeko.

la hurrengo jokaldian Tolosak gola egin zuen ordea. Zorte txarra izan zuten urdin-betzek. Gartzik baloia aldentzerakoan, Tokero atezainaren bizkarrean jo eta bigarrena bere atean sartu zuen Ostadarrek.

Partidaren hondarrean izan zuen Painok neurketa erabakita utzeko aukera eraz kanpoko eskuindaka borbiz batez, baina atezainaren lan txukunak eta langak baloia kanpora bidali zuten.

Beraz, gora begira jarraituko dute bi taldeek, saillkapeneko ohorezko postuetan.

SASKIBALOA.

Basket txapelketa Okendo plazan

Ostadar SKT-k Gipuzkoako Saskibaloi Federazioa eta Gipuzkoa Basket taldearen laguntzaz, I. Basket txapelketa antolatu du.

Hitzordua urtarriaren 4ean izango da. Goizeko 9:00etatik aurrera Okendo plazan 3x3 partidak eta jaurtiketa hirukoitzaren txapelketa izango da.

Maila guztietako jokalariek parte hartu dezakete, benjaminetatik seniorerata. Hiruko taldeak antolatu behar dira eta kapitain bat egon behar du.

Sariak, afariak eta opariak izango dira parte hartzen dutenentzat.

Izena ematea

Izena ematea Ostadar SKT-ko egoitzan egin behar da abenduaren 20a baino lehen.



Ostadar SKT-ko kadete mailako neska saillapenean lehengo doaz.

Jokalarri bakoitzak euro bat jarri behar du parte hartzea zuzartzeko.

Taldeak ederki

Bestalde, txapelketako bigarren itzulian murgilduta daude Ostadar SKT-ko nesken

taldeak eta saillapenean ederki daude kokatuak.

Kadete mailako errendimenduko neskek partida guztiak irabazi eta lehengo postuan dira; juniorrak bigarren doaz partehartzet mailan, lehenengotik 3 puntura.

LABURRAK.

Haurrentzako kirola Gabonetan

Lasarte-Oriako Kirolen Udak Zerbitzuak Gabonetan kirol eto joko ekintzak antolatu ditu 2002, 2003, 2004 eta 2005 urteetan jaiotako neska-mutilentzat.

Jarduera honetan parte hartzen dutenak, Gabonetan lagun berriak egiteaz gain, kirol eta jolas berriak ere ezagutuko dituzte. Andoingo Goiburu Golf Elkartera ere iteera egingo dute.

Jarduerak abenduaren 26, 27 eta 30 eta urtarrilaren 2 eta 3an izango dira Udal kiroldegian. Goizeko saioak izango dira, 09:30etik 12:30era

53 euro balio du ekintzak. Prezioan sartuta daude hamaiketako, garraioa eta kirol materiala.

Izena ematea irekia dago. Inskribatzeko edo informazio gehiago jasotzeko Lasarte-Oriako Udal Kiroldegiko bulegora hurbildu behar dira interesatuak, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 19:00etara.

Kirol zerbitzuak jakitera eman duenez, taldeak gehienez 20 partaide izango ditu. Beraz, plazak hartzeko inskripzio hurrenkera errespetatu da.

Ostadar SKT-ko otarra eta loteria

Uterto legez, Ostadarrek bazkide guztien artean otar bat zozketatu du. Arduradunek jakitera eman dutenez, abenduaren 20ean Ostadarreko bulegoko atean eta www.ostadarskt.org helbidean zenbaki irabazlea jarrito dute.

Besteik, gabonetako loteria salgai du kirol taldeak, 04.801 zenbakia eta bulegoko ordutegian dago salgai, 18:00etatik 20:00etara.

Agenda

Osteguna 12, 21:30ean, Manuel Lekuona kultur-etxean



Gidariaren bizitza bikoitza

Okendo Zinema taldearen eskutik, aste honetan "Drive" filma ikusi ahaliko da. James Sallisen liburuan oinarritzen da filma eta hainbat sari lortu zituen 2011. urtean. Driverrek egunean zehar kotxe tailer batean egiten du lan eta filmeetako gidari espezialista da. Gauetan, berriz, lapurretetan laguntzen du. Sarrera, leihatilan 4,65 euro; internet bidez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.

Ipuin-Kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Osteguna 12,
18:00etan

Pello Añorgak ipui-
nen mundua hurbil-
duko die 4, 5 eta 6
urteko haurrei.



Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 13, 22:00etan

Antzerki amateurrak Kukuka-rekin elkarlanean programatua. Abarka antzerki taldeak "Biba zorrien izurritea" lana eskainiko du. Sarrera, 5 euro.

Ikastaroa

Astelehena 09, 18:00etan

Ttakin kultur elkarteak taloak egiten ikasteko saioa antolatatu du. Izena ematea Ttakuneko bulegoan egin behar da.

GAZTEKUIA

Larunbata 14, 10:30ean

Emagin elkarteak 16 eta 30 urte bitarteko emakume gazteei zuzendutako autodafentsa feminista tailerra eskainiko da. Emakumeenganako indarkeria aurkako ekitaldien barruko ekintza da.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Abendu bukaera arte

"Santo Tomas" eta "Olentzero" jaialdietako argazki zaharren erakusketa izango da ikusgai.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 15, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, "Percy Jackson y el mar de los monstruos" fantasiazko filmaz gozatzeko aukera izango duete txikiak. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro.

Igandea 15, 19:30ean

Helduentzako zinea, "Drive" filma eskainiko da. Sarrera, leihatilan, 5,85 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

Musika

ZULO ARETOA

Ostirala 13,
21:30ean

"Putopia" antzerkia eskainiko dute eta otean, DJ Plan-en eskutik, reggae eta dancehall soinuez gozatu ahaliko da.

Larunbata 14, 23:30ean

DJ Dagger-ren saioaz gozatzeko aukera izango da.

Igandea 15, 21:00etan

Japoniako Agonize eta Serbiako Deaflock taldeen trash metal kontzertua izango da. Zumaiko Trashgresion taldea ikusteko aukera ere izango da.



Zirkuitu Musikala

Larunbata 14

Lasarte-Oriako hainbat tabernantzan estilo desberdinetako taldeetaz gozatzeko aukera izango da.

Literatur txokoa

VILLA MIRENTXU

Asteartea 10,
18:30ean

Harkaitz Canoren "Twist" eleberria aztertuko dute. Idazlearen hausnarketak jakiteko aukera izango da, Harkaitz Cano saioan izango baita.



Herritarren txokoa

"La Esperanza" auzo-elkarteko batzar nagusia

"La Esperanza" auzo-elkartek bere bazkide eta auzokideei jakin arazten die abenduaren 10ean, asteartea arratsaldeko 18:00etan batzar orokorra egingo duela. Bigarren deialdia, 18:30ean izango da.

Aterpeko loteria

Aterpea Merkatarri elkarteak jakin arazten du Gabonetako loteria salgai duela. Elkarteak komertzioetan erosi daitezke txartelak.

Danak Kideren jaiotza lehiaketa

Danak Kide elkarteak, aurtun ere, jaiotzen lehiaketa antolatatu du.

Hauk dira parte hartzeko oinarriak: jaiotzak gehienez, 80x60 zm-ko neu-
rriak izan behar ditu eta, batez ere, ez da onartuko honeto sendorik ez duen lanik. Aurreko urteetako lehiaketetara aurkeztutako proiekturik ere ez da hartuko.

Jaiotzarekin gutun-azal batean egileen izenak sartu eta azalean parte-hartzaile edota taldearen adina idatzita eman behar da.

Jaiotzak aurkezteko egunak abenduaren 20 eta 21a izango dira. Danok Kide elkartearen goitizan Blas de Lezo kaleko 11 zenbakian utzi beharko dira 17:00etatik 19:00etara. Abenduaren 29an saribanaketa egingo da.

Lasartearra elkarteak loteria

Lasartearra elkarteak bazkideei eta lagunei jakinarazten Gabonetako loteriako txartelak salgai dituela. Hauk eskuratzeko, elkarteak goitizara, Erribera Kalea 10 atzealdean, hurbildu behar dira interesatuak.

Marrazki eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrazki eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiralen dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxeko 2. solairuan. Interesa duten herritarrak gerturatu daitezela klase ordutuan.

Hemeroteka

Duela 1087 ale

Aiña Emakume taldeak eta Egizane eraso eta tratu txarren inguruko jardunaldiak antolatuta zituzten 1995eko azaro amaieran. Hauen berri eman zen TXINTXARRRI.

Mertxe Murua psikologo eta sexologok eta Garbiñe Merinok pedagogo eta sexologok eskaini zituzten tailerrak eta 35 bat herritar hurbildu ziren hauetara.

Irizti eta kezka asko jarri ziren mahai gainean. Agresibitateaz, eraso psikikoa eta fisikoa, biolentzia mota desberdinetaz hitz egin zen hauetan.

Eraso fisiko hauek familian ematen direla auzaldi zen tailerlean. "Bertako kideen artean lotura berezia eta handia sortzen da, eta sortzen den konfiantza dela eta, elkarren arteko errespetu falta erazago sor daiteke" azaltzen zen artikuluan.

Eta estatistikak ere landu ziren. Mertxe eta Garbiñek artikuluan azaldukoaren arabera, biolentzia emozio genetikoan da eta giro aproposa ematen bada kanporatu egiten dugu, maila-sozial gutzietan, hai emakumeen, bita gizonen ere. "Beti pentsatu da gizonek emakumeak gehiagotan jotzen dituztela eta ez da horrela, baina gizonaren indarra dela eta, emakumearengan ondorioak nabarmenagoak dira".

Biolentzia eta alkoholaren lotura ere aztertzen zen. Tailerrek arduradunek "normalean eguneroko edaten ez duenak eta noizbait mokortzen denak tratatu txarrak emateko joera handiagoa du" aitaputu zuten.

Hau gutziaz jarri, orduko legeak tratatu txarrei buruz zer esaten zuen ere adierazten zen artikuluan.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858

txintxarri@txintxarri.info

Eskaintza betetako GABONAK

ELECTRICIDAD ARREGUI

89,99€
Nikon

79€

105€

299€
PHILIPS

www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 361080 • Tel./ Faxa: 943 372521

Ortebetetzeta meriendak festak antolatzen ditugu

Ostegunetan PINTXO POTE

ZULO

Asteazkenetik Igandera 17:00etatik aurrera IREKITA

Zulo Auzoa: Hipódromo Euzbidea 11, Lasarte

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

Usurbilgo OIARDO Kiroldegian

2013ko abenduaren 21ean, bi saio:
16:00etan eta 18:30etan

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

"Bizipoza"

Ian berriaren aurkezpen emanaldia

Sarritan: guretik 8 euro / egun bera 9 euro (12 hilabete arteko haurrek doan)

Sarritan puntuak: Lasarte (Artizar taberna)
Hernani (Leokadisti liburudenda)
Usurbil (Bardetxo taberna eta Marije arropadenda)

Antolatzailea: ARGIAren Lagunak Usurbilgo Taldea

Hartzearen helburua: 943 37 15 45 / sustapena@ergia.com

BIZIPOZA